

Funtsezko Baliabideak

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Funtsezko baliabideak hainbat dira:

Baliabide fisikoak: Gure lana egiteko beharko ditugun objektu fisikoak: bost ordenagailu, lokal bat lana egiteko, bulegoko materialak eta kideetako bakoitzak mugikor bat.



Baliabide intelektualak: kideetako bakoitzak dituen ezagutzak, behar izanez gero programazio eta aplikazioetan aditua den pertsona bat kontratatuko genuke, bere ezagutzak lagungarriak direlako.



Giza-baliabideak: Giza baliabideak erakunde batean lan egin eta funtzio bat betetzen duten pertsonen multzoa da, bereziki horien ezagutza, trebezia eta motibazioari buruz. Gure enpresako giza-baliabideak, hau da, langileak, enpresako kideak gara, hau da, Xabier, Danel, Enaitz, Joseba eta Unax, gure ezagutza barne. Xabier gure enpresa buruak lider izateko gaitasuna eta antolaketa aportatuko du. Danelek, giza harremanetarako trebetza. Enaitzek komunikatzeko trebetasuna. Josebak finantza ezagutzak eta Unaxek programazio eta informatika ezagutzak.

Finantza-baliabideak: Gure enpresa martxan jartzeko dirua enpresako kide bakoitzak jarriko luke, gure aurreikuspenen arabera, 3000€ bakoitzak gutxi-gora-behera. Horrez gain, aplikazioa sortu eta garatu ahala diru gehiago beharko dugunez, bankuari 10.000€ko mailegu bat eskatzea aurreikusten dugu.

